



TESTUAK

Animalia basatiez betetako sabana izugarriak. Mendi elurtuak. Lurrari kolorea ematen dioten herri tradizionalak. Paisaia biziak.
Ezkutua eta bi lantza gurutzatu dira herrialde horren ikur nagusiak; askatasunaren defentsa adierazi nahi dute.



Hondartzak palmondoekin, janariak txilearekin, oihañak, hiri jendetsuak eta eraikuntza tradizionalak: piramideak, adibidez. Bertako biztanleek bisitariak erakartzen dituzte.

Marra bertikalez osatutako bandera; horren mapak balea baten antza du, eta hegoaldean balearen isatsa nabari daiteke.



Arkitektura ikusgarriak eta oso aberatsak: hondakin erromatarak, Erdi Aroko etxeak, eraikuntza neoklasikoak... bainu termalak. Ilunabarrean Europako herri ederrenetako bat da. Danubio ibaiak mugatzen du hiria.

Berdea, zuria eta gorria dira horren kolore bereizgarriak.



Ez dago Lur planetan horrelako eremu zabal, zuri eta hotzik: elurra, izotza, ura eta harria. Urruntasuna, izotz-plataformak eta bizitzaren agerbide bitxiak dira herrialde eder horren bereizgarriak. Bertako izotzak eta klimak mugatzen dute bizia. Bertan ikerketak egiten dira eta oso gizaki gutxi bizi dira urte osoan zehar.

Banderaren koloreak zeruarena eta izotzarena dira.



Herrialde honek natura zoragarria du, dibertsitate handikoa eta oparoa, eta kultura aniztasuna ere handia du. Biztanle gehienak kostaldean bizi dira, batez ere hirietan, eta zerbitzu-eskaintza zabala dago horietan. Hiriburua Canberra da.





Bere banderak Britainia Handikoaren antz handia du, izan ere, ingelesek uhartea kolonizatu zuten.



Bertako natura oso ederra da, eta kultura-aniztasun handia du. Esperientzia asko bizi daitezke bertan: badia berdeak, errepide zaratatsuak motoz beteak, herrialdea zeharkatzeko zailtasunak, kobazuloak, ibaian egiten den merkatua, biztanleen gertutasuna...

Izar bakarreko sinboloa: izar horia hondo gorriaren gainean.





INFORMAZIO OROKORRA

KONTINENTEA: Afrika

HIRIBURUA: Nairobi

KLIMA: beroa

BIZIDUN MOTAK:

Landaretza: palmerak, teka, akazia...

Animaliak: elefantea, errinozeroa, jirafa, lehoia...

HIZKUNTZA: Swahiliera eta ingelesa

DIRUA: kenyako txelina



KONTINENTEA: Amerika

HIRIBURUA: Mexiko hiria

KLIMA: epela

BIZIDUN MOTAK:

Landaretza: pinua, artea, aguakatea, elorri zuria...

Animaliak: azeria, koiotea, mapatxea, katu maltesa, eskorpioia...

HIZKUNTZA: espainiera

DIRUA: Mexikoko pesoa



KONTINENTEA: Europa

HIRIBURUA: Budapest

KLIMA: epela

BIZIDUN MOTAK:

Landaretza: haritza, ezkia, pagoa

Animaliak: erbia, azeria, oreina, basurdea, ahatea...

HIZKUNTZA: hungariera

DIRUA: forinta



KONTINENTEA: Ozeania

HIRIBURUA: Canberra

KLIMA: epela

BIZIDUN MOTAK:

Landaretza: eukaliptoa, kaktusa, itsas azpiko korala...

Animaliak: koalak, kanguruak, Tasmaniako tigrea...

HIZKUNTZA: ingelesa eta aborigenen jatorrizko hizkuntzak

DIRUA: Australiar dolarra



KONTINENTEA: Antartika

HIRIBURUA: Nazioarteko ikerketa-estazioa

KLIMA: hotza

BIZIDUN MOTAK:

Landaretza: algak, goroldioak, likenak...

Animaliak: itsas-hartzak, fokak, pinguinoak...

HIZKUNTZA:

DIRUA:



KONTINENTEA: Asia

HIRIBURUA: Hanoi

KLIMA: beroa

BIZIDUN MOTAK:

Landaretza: banbua, pinua, mangladiak...

Animaliak: elefanteak, oreinak, tigreak...

HIZKUNTZA: vietnamera

DIRUA: donga

